

# **Gizarte Ekimeneko ikastetxeetako ehundik gora ordezkariak Greba amaierako akordioa betetzea eta hitzarmenean txertatzea galdegin diote patronalei eta eskolei**

## **Elkarretaratzea egin dute gaur Kristau Eskola Gizarte Ekimeneko ikastetxeetako patronal nagusiaren aurrean**

14 greba egun barneratu zituen greba eta mobilizazio dinamikaren ondorioz Greba amaierako akordioa sinatu zuten Gizarte Ekimeneko ikastetxeetako mahai negoziatzailean ordezkariak daukaten patronalen eta sindikatuen 100%ak. Otsailaren 5ean izan zen. Akordioa indarrean dago eta langileek akordioa bete dute. Horrela, sinatu zen egunetik greba bertan behera utzi zuten.

Akordioa sinatu eta hiru hilabetera patronalak eta eskolak ordea ez dira akordioa betetzen ari. Sindikatuekin izandako bileretan, Kristau Eskolak eta AICE-IZEA patronalek akordioaren aplikazioa atzeratzeko eta akordioa adostutako terminoetan ez betetzeko asmoak utzi dituzte agerian.

Hurrengo mahaia maiatzaren 29rako dago lotuta. Mahai honi begira ordezkariak ondorengo eskaerak luzatu dizkiete bertako patronalei:

- Greba amaierako akordioa adostutako baldintzetan aplikatzeko
- Adostutako igoerak jasotzen dituzten soldata taulak behin betiko gisa onartzeko; jaurlaritzaren onespeneren eta finantzaketaren menpekotasunari lotu gabe.
- 2024rako adostutako igoeren araberako ordainketak egiten hasteko data bat finkatzeko
- Adostutako lanaldi murrizketak eta Lanbide heziketako jardunaldi irregularren konpentsazioa 2023-2024 ikasturtean aplikatzeko
- Enpleguan birkokapen araudia hitzarmenean txertatzeko eta kalte ordainak eta aintzinasuna aitortzeko araubide berria bermatzeko
- Irakasleentzat adostutako eskola orduen murrizketa hitzarmenaren artikulatua jasotzeko
- Akordioan jasotako edukiak Lan Hitzarmen berrian adostutako baldintzetan txertatuko dituen erredakzio oso bat ekartzeko

Patronalek akordioa betetzeko oztopoak eta atzerapenak planteatzen jarraituz gero, mobilizazioen bidea zein bide juridikoa aktibatu beste aukerarik ez dute izango gaurkoan elkarretaratu diren ordezkariak eta hauek ordezkatzeko dituzten 9.000 langilek. Horrela, otsailaren 22an eskoletan langileei elkarretaratzeak egiteko dei egin diete.

Euskal Herrian 2024ko maiatzaren 16an



## **Más de un centenar de representantes de los centros de enseñanza de Iniciativa Social exigen a patronales y centros que cumplan e integren en el Convenio el acuerdo de fin de huelga**

### **Se han concentrado hoy ante la patronal mayoritaria de los centros de Iniciativa Social, Kristau Eskola**

El 100% de las patronales y sindicatos con representación en la mesa negociadora de los centros de Iniciativa Social firmaron el acuerdo de fin de huelga gracias a la dinámica de huelgas y movilizaciones que incluyó 14 jornadas de huelga. Fue el 5 de febrero. El acuerdo está vigente y los y las trabajadoras han cumplido el acuerdo. Así, desconvocaron la huelga desde el día de su firma.

Tres meses después de la firma del acuerdo, las patronales y los centros no están cumpliendo el acuerdo. En las reuniones mantenidas con los sindicatos, las patronales Kristau Eskola y AICE-IZEA han dejado claras sus intenciones de retrasar la aplicación del acuerdo e incumplir el mismo en los términos acordados.

La siguiente mesa está acordada para el 29 de mayo. De cara a esta mesa los y las representantes han trasladado a las patronales las siguientes peticiones:

- La aplicación del acuerdo de fin de huelga en los términos acordados
- La fijación como definitivas de las tablas salariales que recojan los incrementos acordados, sin sujeción a la dependencia de la aprobación y consolidación del Gobierno.
- El establecimiento de una fecha de inicio para el abono salarial según los incrementos acordados para 2024
- La aplicación de las reducciones de jornada y de la compensación de la jornada irregular en Formación Profesional para el curso 2023-2024 conforme a lo acordado
- Incluir en el Convenio del reglamento de recolocación; y garantizar el nuevo régimen de de indemnizaciones y de reconocimiento de antigüedad.
- Recoger en el articulado del convenio la reducción de horas lectivas acordadas para el profesorado
- Aportar una redacción completa del Convenio Colectivo que integre los contenidos recogidos en el Acuerdo en los términos pactados.

En caso de que las patronales sigan planteando obstáculos y retrasos en el cumplimiento del acuerdo, los y las representantes que se han concentrado en la jornada de hoy así como los y las 9.000 trabajadoras que les representan no tendrán más remedio que activar tanto la vía de las movilizaciones como la vía jurídica. Así, han llamado a las trabajadoras y trabajadores a concentrarse en los centros el día 22 de mayo

Euskal Herria a 16 de mayo de 2024



